



EAEko HEOak

EUSKARA AZTERKETA EREDUA

GAITASUN MAILA (C1)

1. DOKUMENTUA: ATAZAK

IRAKURRIAREN ULERMENA (30 puntu; gutxienez: 20 puntu)

1 ARIKETA

Irakurri hurrengo testua eta erabaki hiru aukeren artean zein den testuaren esanahiarekin bat datorrena. 10 item (10 puntu). 0 adibidea da.

KOLDO MITXELENAK DITU KULPAK

Azkoitiarra naizela esan, eta zenbat aldiz ez ote dudan entzun berehala: “Baina ez duzu azkoitiarrez hitz egiten!”.

Hori entzutean, desenkusa gisa edo, erantzun luze eta nahasi samarra ematen dut gehienetan, alfer samarrekoa seguru asko. Baina egun hauetan — Koldo Mitxelenaren jaiotzaren lehen mendeurrenako aipamenek hartaratuta— pentsatzen hasia nago hemendik aurrera labur erantzungo dudala horrelakoetan: “Koldo Mitxelenak ditu kulpak”. Euskara batuari diodan oniritzia, konfiantza eta atxikimendua hari zor dizkiodala uste baitut, neurri handi batean bederen.

Ez nuen inoiz irakasle izan Mitxelena. Izan nuen, ordea, Mitxelenak euskara batuari buruz zuen ideia, iritzia edo ikuspuntua transmititu zidan irakaslerik, eta haien artean bereziki bat aipatu nahi dut Mitxelena ohoratzen ari garen egun hauetan: Felipe Yurramendi Larburu, duela hilabete pasatxo hil zen mitxelenazale amorratua.

Patxi Altunak apailatutako *Koldo Mitxelenaren idazlan hautatuak* liburua eskuetatik askatzeke eta begien aurretik kentzeke, “nola esango zenukete?” galdera gidari eta lemazain jartzen zigun beti Felipe Yurramendi zenak, eta nik uste dut eskola ordu haietan euskara batua noranahi aise iristeko balio

0. Egileak...

- a. euskara batua ez du gustuko.
- b. euskara batuari lehentasuna ematen dio.
- c. dio Mitxelenak hondatu zuela azkoitiera.

1. Mitxelenak...

- a. bere ideiak transmititu zizkio eman zituen eskola-orduetan.
- b. batuari buruz zituen ideiak zenbait irakaslek transmititu zizkioten Zabalari.
- c. Felipe Yurramendiri eman zizkion eskolak.

2. Euskara batuarekiko atxikimendua...

- a. irakasleari “nola esango zenuke?” galdetuz jaso zuen.
- b. Patxi Altunak atondutako liburua oinarri zuten eskola-orduetan jaso zuen idazleak.
- c. Patxi Altunaren eskola orduetan jaso zuen idazleak.

duen tresna delako konbentzimendua geureganatu genuela ikasle guztiok. Beti baitzuen erantzun bat “nola esango zenukete?” galdera bultzatzaileak.

Miren Azkarate, Juan Mari Lekuona, Patxi Altuna, Lourdes Otaegi eta beste hainbat eta hainbat irakaslek ere euskara batua modu natural eta bizian erabiltzen zen giro batean murgilarazi gintuzten, geu ohartu ere egin gabe. Baina Felipe Yurramendik izan zuen, nire ustez, horretan eraginik zuzenena; horixe baitzen, izan ere, haren eskola orduen funtsa: gu euskara batuaren ezagutzan eta erabileran trebatzea.

Irakasle haien eraginez hitz egiten dut, azkoitiarra izanagatik ere, euskara batuan; haiek Koldo Mitxelenaren ideiak sartu zizkidatelako buruan. Hitz egiten dut azkoitiarrez ere, azkoitiarrekin; nahiz eta batzuetan, gero eta sarriago zoritxarrez, *batukadak* eskapatzen zaizkidan. Ez nator bat, ordea, Azkoititik edo azkoitiarren arteko giroetatik kanpo azkoitiarrez hitz egin beharko nukeela diotenekin.

Ulertzekoa da batzuei pena ematea azkoitiar bat batuan hizketan entzuteak, eta neuk ere konpartitzen dut pena hori. Baina niri horrek baino askoz ere pena handiagoa ematen dit oso jende gutxirengan aurkitzeak euskara batuari oniritzia, konfiantza eta atxikimendua izateko behar izaten den oinarri nagusietako bat: euskararen ezagutza sakon eta batez ere zabal bat, norberaren txokoko euskara jatorraz gaindikoa eta ahozkotasan hutsetik haragokoa; euskararen ezagutza kultural, integral eta moderno bat; edo, euskararen ezagutza nazional edo abertzale bat, hala esan nahi bada, ikuspegi politiko batetik begiratuta.

Pena ematen dit, baita ere, euskararen ezagutza sakon eta batez ere zabala duen hainbat euskaltzale —eta *euskalzulo*— euskara batuaren aurkako —edo

3. Idazleak eta bere ikaskideek euskara batua onetsi zuten...

- edonora heltzen errazten zuen baliabidea zelakoan.
- irakaslearen galdera egokia zelako.
- Felipe Yurramendi zenak horretarako tresna eman zuelako.

4. Zabalaren beste hainbat irakaslek...

- batuaren ordez, euskara naturala eta bizia egiten zuten.
- ere euskara batuaren aldeko hautua eginga zuten.
- Yurramendik adinako eragina izan zuten ikasleengan.

5. Egileak deitoratzen du...

- azkoitiera ez dela, giro zehatz batetik kanpo, hitz egiten.
- ez duela azkoitieraz jada hitz egiten.
- gero eta maizago sartzen duela batua azkoitieraz ari dela ere.

6. Egileak dio...

- euskara onena norberaren etxekoa dela.
- jendeak, oro har, ez duela ontzat hartzen euskara batua.
- jendeari pena ematen diola euskara batua entzuteak.

7. Idazlearen iritziz...

- ahozkotasunean oinarritu beharko litzateke euskara batua.
- batuak bermatzen du euskararen erabilera sakon eta integral bat.
- euskara batuak ikuspegi politiko bat eduki beharko luke.

behintzat ez oso aldeko— iritziak eman eta zabaltzen sumatzeak; Iñaki Segurola eta Patziku Perurena ditut bereziki gogoan, euskara batuak izan dezakeen indar espresiboaren adibiderik onenetakoak biak ere, paradoxikoki, bide batez esanda.

Ez dut uste, ordea, batuak huts egin dienik Segurola, Perurena eta gisakoei. Euskaldun gehienek ez diete euskara batuari inolako oniritzirik, konfiantzarik eta atxikimendurik, eta horrenbestez euskara batua oso urrun dago izan lezakeen indar espresibotik eta are urrunago —Fermin Etxegoienen terminologian esanda— erakargarri izateko beharko lukeen masa edo bolumenetik. Hori begien bistan dago. Baina hori ez da gertatzen euskara batua, berez eta izatez, esentziaz, hotzegia eta motzegia delako; baizik eta ez dugulako behar adinako indarririk egiten euskara batua erretzeraino berotzeko eta puskatzeraino luze-zabaltzeko. Oinarrizko arazoak, zakar eta gordin esanda, ezjakintasuna, zabarkeria eta inkultura dira; edo espainolismoa eta frantseskeria, hala esan nahi bada, ikuspegi politiko batetik begiratuta.

Juan Luis Zabala, Inon izatekotan bloga, 2015-07

8. Penagarria da...

- a. euskara batuaren ezagutza ez zabaltzea.
- b. euskaldunek batuaz hitz egitea.
- c. zenbait euskaldunek batuarekiko mesfidantza zabaltzea.

9. Gaur egun darabilgun batua...

- a. orain dena baino askoz hobea izan liteke.
- b. oso urrun dago euskaldunengandik.
- c. Segurola eta Perurena bezalako tresna da.

10. Euskara batua...

- a. ezin da nahi beste zabaldu.
- b. gai da berez erakargarri izateko.
- c. galtzen ari da.

2 ARIKETA

Hurrengo testuko hutsuneak betetzeko ematen diren hiru aukeretatik esan zein den testuari dagokiona. 14 item. 0 adibidea da.

HERRI TXIKI, ZERU HANDI

Urrunekoa ez zen negozio-gizon tente bat ibili zen iaz herrian, uztailez, oporretan. Goiz batean, kaian ____0____ zebilela, txalupa bat bistaratu zuen benta parean. Gizaseme gazte itxurako bat hegialbur gutxi batzuk lehorrera ateratzen ari zen. Gizonak, hurbilduta, arrainaren ederra goretsi eta galdetu zion itsasgizonari ea zenbat denbora behar izan ote zuen arrantza hura egiteko. Eta honek: "Hutsa... Ti-tau! Ez naiz itsasora irten ____1____".

Gizon tenteak orduan galdetu zion ea zergatik ez zen, bada, denbora gehiago arrantza-lanean jardun, ____2____ eta arrain gehien harrapatzeko, jakina.

Eta marinela aski zuela harekin erantzun zion; aski eta sobera ere bazuela etxeko premietarako. Bestea ez zegoen isilik ____3____, ordea: "Zer egiten duzu, hortaz, gero egun osoan?". "Lo egiten dut egunsentira arte –erantzun zion arrantzaleak–; goizero itsasora ateratzen naiz pixka batean; paseatzera joaten naiz gero ____4____ mendira, perretxikotara-eta; eguerdian, txakolin pare bat lagunekin; bazkalondoren, siesta egiten dut andrearen ondoan gozo-gozo; umeak eskolatik jaso eta herrian ____5____ bazter ibiltzen gara, erosketa eta abar; ilunabarrean, kuru batean kantatzen dut; asteburuan, kartatan jokutzen dut lagun zaharrek... Bizimodu atsegin ____6____ bizi naiz, horra!".

Besteak halako irri-mirri batez: "Begira, ondo dakit nik ozioen eta negozioen berri. Nik, zu ____7____, hasteko, arrantzan askoz ordu gehiago emango nuke, eta, irabaziekin, ontzi handiago bat erosi.

Zenbat eta arrain gehiago, ____8____ eta irabazi gehiago, bistan da. Denborarekin flota txiki bat lortuko

0.
a. begira
b. ikusmiran
c. so eginik

1.
a. berria
b. zaharra
c. zalea

2.
a. ahalik
b. geroz
c. zenbat

3.
a. egoteko
b. egoten
c. egotera

4.
a. firin-faran
b. tipi-tapa
c. zarra-zarra

5.
a. bazter
b. bazterretik
c. bazterrik

6.
a. bete-betea
b. bete-beteaz
c. bete-beterik

7.
a. izanez
b. izateko
c. izatera

8.
a. are
b. gero

nuke, neurea. Harrapatutakoak, bitartekari bati ez, handizkari bati salduko nizkioke zuzenean. Baita neure kontserba-fabrika sortu ere. **9**, produktua neuk kontrolatuko nuke, lanketa-prozesua, komertzializazioa... Herri txiki honetatik hiriburu handiren batera alde egingo nuke, neure enpresaren hedatze mundiala bulego eder batetik zuzentzeko. Zer **10**, egitea lortuko bazenu...?”.

Eta itsasgizonak: “Baina zenbat denbora beharko nuke **11**”. “Ez dakit, ba... Hogei bat urte”. “Eta gero zer?”. Barrezka hasi zen handikia: “Gero zer, diozu? Hor dago, ba, koxka. Zure enpresa burtsan saldu, diru ederrak jaso, milioiak irabazi eta aberats bizi!”. “Milioiak irabazi, konforme. Eta ondoren, zer?”.

Negozio-gizonak pulpituko fraidea baino puztuago: “Orduan..., nahi beste lo egin **12** lanak alde batera utzita; kostako herri poxpolin batean bizi **13**, hiriko burrundaretatik ihesi; andrearen ondoan lo-kuluxka goxoak egin zenitzake, hanka hankari emanda; seme-alabekin hondartzan paseatu, lagunekin karta-jokoan aritu, kantu-gozamenean ibili...”. Eta marinela: “Bizi nahian, bizia **14**!? Zuk esandako guzti-guztia orain ari naiz bizitzen, hemen bertan. Zertan, hortaz, hogei urte itxaron!?”.

Jesus Mari Mendizabal, DV, 2015-06-17

c. orduan

- 9.**
a. Haatik
b. Hartara
c. Horregatik

- 10.**
a. daramazu
b. deritzozu
c. diharduzu

- 11.**
a. hor guztian
b. horrentzat guztiarentzat
c. horretan guztian

- 12.**
a. zaitzake
b. zenezake
c. zenuke

- 13.**
a. dezakezu
b. dezazun
c. zintezke

- 14.**
a. galdu
b. kendu
c. ostu

3. ARIKETA

Hurrengo testuko hutsuneak bete behar dituzu. Sar ezazu hutsune bakoitzean hitz-zerrendatik dagokion hitza. 3 HITZ SOBERA daude. 6 item (6 puntu). 0 adibidea da.

MARTEKO URA MARTETARRENA DA

Zientzia beti da ezusteko iturri. ____ (0)____, Marten ur likidoa egon daitekeela iradokitzen duten zantzuak aurkitu izana asteko zientzia-albiste bihurtu da. Albistearen ____ (1)____, Marten bizidunak aurkitzeko aukera aipatu dute bai zientzialariek bai kazetariek, eta indartu egin da gizakiak Martera bidaltzeko egitasmoa.

____ (2)____, Martera bidaiatzerako oztopo handi bat gainditu behar dela ohartarazi du Lee Billings adituak *Scientific American* aldizkarian. Oztopo hori ez da distantzia, dirua edo politikarien edo gizartearen babes falta, baizik eta ____ (3)____ martetarrak eta haiei zor zaien errespetua.

Billinglek gogorarazi duenez, 1967ko Nazio Batuen Kanpo Espazioaren Itunak gure mundutik kanpo dauden beste munduak kutsatzea debekatzen du. Marteren kasuan, 2002an, bizidunak hazteko leku proposenak identifikatu eta «babes bereziko leku» izendatu zituen COSPAR nazioarteko erakundeak. Hala, Marten dabilzan ibilgailuak ezin dira leku horietara joan, ____ (4)____.

Kontuan izanda robot batean Ilargian bi urte eta erdiz iraun zuten bakterio lurtarrak topatu zituztela, COSPARen zuhurtziak ez dirudi neurritz kanpokoak. Martera ____ (5)____ bidali aurretik, ondo esterilizatuta dagoela bermatu beharra dago; bestela, bizidunen bat topatuz gero, lurtarra izatea gerta daiteke, eta ez martetarra. Eta, Billingen esanean, oraingoz ez dago modurik gizakiak bidaltzeko baldintza horietan. Horrenbestez, badirudi urte dezente joango direla gizakia planeta gorriaren zorua zapaltzen ikusterako, ____ (6)____ Marten leudekeen izakien erruz.

Ana Galarraga, *Berria*, 2015-10-04

- A. *hala*
- B. alabaina
- C. balizko
- D. badaezpada ere
- E. beraz
- F. ezer
- G. alegia
- H. harira
- I. lehenik
- J. zer eta

0	1	2	3	4	5	6
A						

ENTZUNAREN ULERMENA (30 puntu; gutxienez: 20 puntu)

1 ARIKETA

Irrati saio honetan Jasone Osori idazleari bere azken nobelaz egindako elkarrizketa entzungo duzu. Entzun arretaz, eta ondoren, ematen diren hiru aukeretatik, erabaki zein datorren entzundakoarekin bat. 10 galdera (15 puntu). 0 adibidea da



[1.audioa-Jasone Osoro](#)

JASONE OSORO

(Azpimarra, ETB1, 7'51")

0. Jasone Osorok...

- a) diskoa kaleratu du.
- b) **liburu bat argitaratu du oraintsu.**
- c) liburu bat idazteko asmoa dauka.

1. Jasone Osororen helburua...

- a. ez da idaztea soilik.
- b. irakurle asko izatea da.
- c. irakurleek "gustatu zait" esatea da.

2. Bertak...

- a. harritu egiten du irakurlea.
- b. irakurlea bere alde jartzen du liburuan.
- c. zirrara eragiten dio irakurleari.

3. Liburuak bi irakurketa dauzka...

- a. atalek elkarren artean antzik ez dutelako.
- b. erritmo desberdinak dauzkalako
- c. ordenan edo zatika irakur daitekeelako

4. "Ama" ipuina...

- a. hainbat atalez osatua da.
- b. liburuaren abiapuntua da.
- c. saritua izan zen lehiaketa baten.

5. Liburuaren haria...

- a. familia artekoen gertakizunak dira
- b. kronologikoki ordenatutako emozioak dira.
- c. zirrarek gugan duten eragina da.

6. Itxura batean liburua kaotikoa da...

- a. atalak ez daudelako ordenatuta.
- b. baina egitura antolatua dauka.
- c. pertsonaiak eta kapituluak nahasten dituelako.

7. Ilaski Serrano esatariak dio...

- a. "Ama" dela atalik biribilena.
- b. kaosak abiada ematen diola liburuari.
- c. paragrafo bakoitzak osotasun bat daukala.

8. Nobela bat idazten duenean...

- a. gogoak eman ahala idazten ditu gauzak
- b. handik-hortik-hemendik ateratzen ditu ideiak.
- c. hiztegi aberatsa erabiltzen ahalegintzen da

9. "Ama"rekin hasi zenean...

- a. ama bezala izan duen esperientzia kontatu nahi zuen Osorok.
- b. amatasunaren garrantzia azpimarratu nahi zuen.
- c. bazekien Bertarentzat garrantzi handikoa zela ama.

10. Berta nolakoa den...

- a. amak azalduko digu liburuan.
- b. ez dugu jakingo amaieraraino.
- c. ezin da ulertu ama kontuan hartu barik.

2. ARIKETA

Irrati saio honetan Ana Galarraga Elhuyar zientzia-aldizkariko zuzendariak 2015eko medikuntzako Nobel sariei buruz hitz egingo du. Entzun arretaz, eta ondoren hiru aukeretatik erabaki zein datorren entzundakoarekin bat.

 [2.audioa-2015eko medikuntza Nobel Sarria](#)

2015eko MEDIKUNTZA NOBEL SARIA

Euskadi Irratia, 07'28"

0. Aurtengo medikuntzako Nobel saria...

- a) amerikar mediku bati eman diote.
- b) erabaki barik dago oraindik.
- c) **nori eman dioten ebatzita dago.**

1. Elhuyar fundazioan medikuntza saria...

- a) aste guztian izan dute hizpide.
- b) beti Ana Galarragari tokatzen zaio aztertzea.
- c) txandaka erabakitzen da nork landu.

2. Faboritotzat jotzen zutenak...

- a) ez du saririk irabazi.
- b) onura handia egitea zuen helburu.
- c) puntako teknikagatik merezi zuen Nobel saria.

3. Nobel saria...

- a) gaixotasun batzuen kontrako terapiagatik eman dute.
- b) hiru ikerlarik berdin banatuta jasoko dute.
- c) malaria osatzen laguntzeko izango da.

4. Gaixotasun hauek...

- a) berezkoak dira herrialde txiroetan.
- b) familia osoak kutsatzen dituzte.
- c) tropikoan baino ez dira izaten.

5. Bizkarroiek...

- a) eritasun beldurgarriak kutsatzen dituzte.
- b) gero eta gaixotasun gehiago transmititzen dituzte.
- c) itsutasuna eragiten diete gehienei.

6. Malaria...

- a) gaur egun erraz sendatzen da.
- b) kalte handiena egiten duen gaitza da.
- c) tratatzeko hainbat bide dago.

7. Ikerlaria zerbaiten bila hasi zen...

- a) eta kinina erabiltzea probatu zuen.
- b) medikuntza tradizionalak atzera botatako landareak erabiliz.
- c) ordura arteko tratamenduak ez zirelako egokiak.

8. Landareekin saiakera egin eta...

- a) abermektina eraginkorrena zela topatu zuen.
- b) antzinako metodoak erabili zituen.
- c) huts egin zuen hasieran.

9. Ikerlari hauek...

- a) lehendik ere izena dute zientzia munduan.
- b) Nobel saria merezi zutela denek aitortzen dute.
- c) zahartzaroan egin dituzte aurkikuntza garrantzitsuak.

10. Nobel saridun hauek...

- a) garai batean egindako lanagatik jaso dute aitortza.
- b) gizarte lanetan ere jardun dute.
- c) hirugarren mundua ikertzen lagundu dute.

IDATZIZKO ADIERAZPENA (30 puntu)

1. ARIKETA (10 puntu).

Idatzi posta elektronikoa hurrengo egoerari erantzunez. 120-140 hitz.

Testu-mota:	Email pribatua.
Nori:	Erasmus programarekin atzerrian dagoen semeari/alabari.
Zergatik:	Bankuko estraktuei begira, ohartu zara ez ohiko gastuak agertzen direla zure semearen/alabaren txartelarekin eginak. Telefonoz saiatu arren, ezin izan duzu berarekin hitz egin. Arduratuta zaude eta azalpenak behar dituzu susmoak uxatzeko, baina ez zenuke hanka sartu nahi.
Kontuan hartuko dira	Diskurtsoaren antolaketa, egokitasuna aberastasuna eta zuzentasuna.

Nork

@

Nori

@

Gaia

2.ARIKETA (20 puntu).

Hurrengo bi gaietako bat aukeratu eta IRITZI ARTIKULUA idatzi behar duzu.

NORI ZUZENDUTA: Herriko/auzoko aldizkariko irakurleei.

HITZ KOPURUA: **240-260 hitz**

TESTUAK IZAN BEHAR DITUEN OSAGAIK:

- Gaiaren sarrera / aurkezpena
- Ideiak osatuta, erlazionatuta, argudiatuta...
- Amaiera: ondorioa, proposamenak ...

KONTUAN HARTUKO DIRA:

- Aberastasuna, diskurtsoaren antolaketa, egokitasuna eta zuzentasuna.
- Ez ahaztu izenburu egoki bat jartzea zure artikuluari.

OHARRA: Koadroetan dauden esaldiak ezin dira hitzez hitz kopiatu; lagungarri izan dakizkizukeen ideiak dira.

ONDO JAN NAHI DUGU, BAINA NOLA?

Nestlé, Pepsico, Kellog's... jaten dugunaren %90 konpainia handien esku dago.

Elikadura burujabetza: bertako produktuak kontsumitu eta bultzatu.

“Produktu ekologikoak erostea garestia da”.

Denbora behar da ondo kozinatzeko.

Munduko Osasun Erakundea: “Dieta desegoki batek tabakoak baino kalte handiagoa eragiten du osasunean”.

Elikagai transgenikoak gero eta erabiliagoak, askotan kontsumitzaileak jakin gabe.

PRIBATUTASUNA

“Telefono mugikorrek eta bankuko txartelek gu kontrolatzeko balio dute”.

“Mugikor zenbakia eta e-mail helbidea denean eskatzen dizkirate”.

Metroan, kalean, dendetan... kamerak edonon.

Lagun batzuek parranda bateko argazkiak jarri genituen Interneten eta orain ezin ditugu ezabatu!

11-14 urte bitarteko gazteen %76k Whatsapp euren edo gurasoen terminaletik erabiltzen dute.

Zergatik egon behar dute nire datu asko edonoren esku?

AHOZKO ADIERAZPENA (30 puntu)

1. ARIKETA (15 puntu)

C1- BAKARRIZKETA.

Egokitu zaizun gaiaz hitzalditxo bat prestatu behar duzu. Horretarako, lagungarri, gaia girotzeko testu labur bat eta garatu daitezkeen zenbait ideia dituzu behean.

Baikorrak izan beharko genuke.

Berba egiteko puntuak

- Zer da baikorra izatea?
- Zelako eragina dauka gure izaerak familian, lanean,...?
- Jaiotzez gara baikorrak edo ezkorrak?
- Terapiak onak ote dira?

Rafael Santandreu, Psikologoa: "Langabeziak deprimi gaitzan uzten badugu, bi arazo izango ditugu, eta bigarrena askoz okerragoa izan daiteke"



"Lanik gabe ere, zoriontsuak izan gaitzke", sinesgaitza badirudi ere. Rafael Santandreu psikologoaren esanetan, sendotasun emozionala da gakoa. Langabezian egotea arazo bat da. Horrekin kezkatzea, bi arazo. Badirudi ahaztu egin zaigula burua zaintzea, baina behar-beharrezkoa dela aldarrikatzen du *El arte de no amargarse la vida* liburuaren egileak (Editorial Oniro, 2011). Mundua "izugarrikeriatitisak" jota dagoen honetan, min ematen dio geure buruak "erruz" zigortzen ditugula ikusteak, eta zientzialaririk onentsuenaren adibidearekin azaltzen du zergatik den hain garrantzitsua jarrera baikorra izatea: "Erabat paralizatuta eta berba egin ezinik, Stephen Hawking-ek harritu egiten baitu bere adimenarekin eta bizitzari

aurre egiteko duen jarrerarekin. Pertsona zoriontsua da oso".

Pertsona baikorrak, jaio egiten dira halakoak edo egin?

Hein batean, jaio egiten gara baikor edo ezkor, % 25ean edo, baina gainerako %75 heziketatik datorkigu, baterako edo besterako hezten gara. Beraz, tarte handia dugu hobetzeko. *El arte de no amargarse la vida* liburuan (Nork bere bizitza ez mingosteko artea), Maria Luisa Merlo aktorearen kasua aipatzen dut. Hark esan zuen oso zoritxarrekoa izan zela 50 urte bete arte. Adin horretatik aurrera, terapia sakon bati esker, eraldatu egin zen. Ikasi egin zuen zoriontsu izaten. Guztiok hezi gaitzke pertsona indartsuak izateko.

2. ARIKETA (15 puntu)

C1-ELKARRIZKETA

Ondoren ematen zaizun **gaiaz 5-6 minutuko elkarrizketa** bat izango duzu zure bikotekidearekin.

⇒ Emaiezu **erantzuna** beheko galderari.

⇒ Eman **arrazoibide** sendoak eta adibideak.

⇒ Entzun zure solaskidearen arrazoibideak eta **erantzun** zeureak emanaz.

Bidaiatzean eduki ditzakegun arazoak.

Aipatu daitezkeen puntuak:

- Hegaldia bertan behera utzi dela, pasaporteak lapurtu dizutela,...Eduki al duzu inoiz arazorik bidaiatzean?
- Zeintzuk dira bidaiarien eskubideak?
- Zer egin liteke horrelako egoerak konpontzeko?
- Zein da bertara joateko lekurik arriskutsuena?

